

Ekainak 23, ostirala

18:30 Gomazko eta larruzko Paletako FINALAK. Ondoren Sari banaketa.

21:30 Altxatarra K.E.-ren egoitzan, San Martzial pilota txapelketa eta mus txapelketaren partaideekin eta nahi duten altxatarrekin afaria.

Ekainak 24, larunbata

9:00 Erromeria Altxako baserrietan zehar, 2023ko Jai Egitarauaren eskaintza, Donostiako Musika Eskolako trikitilariak lagundurik.

Ekainak 29, osteguna, San Pedro eguna

18:00 Frontenis torneo altxatar gazteentzat. Sari asko daude... eman izena...

18:30 BURUHANDIAK kaleetan zehar.

18:30 KANTU JIRA. Altxa kantuzek gidatuta. Animatu elkarrekin abestera.

19:30 Udaletxeko balkoitik PREGOIA.

Ondoren, ohitura zaharra berreskuratzuz SOKA-DANTZA egingo dute Ekialdeko barrutiko ordezkariak San Martzial plazan.

20:00 San Martzial Parrokian, ESLABA maisuaren SALBEA, lau ahotsetara eta organoarekin, Aita Sierra Abesbatzarekin eta Parrokiko Koruaren partaidetzarekin.

20:30 Altxatarra K.E.-aren egoitzan AFARIA, danborradan parte hartuko dutenentzat eta altxatar guztientzat.

22:00 Altxako kaleetan zehar DANBORRADA, Pasai txarangarekin.

00:00 San Martzial Plazan, Udaletxe aurrean, San Martzial ereserkia abestuko da, Pasai Taldea lagun, Danborradako partaide eta bertako auzotar guztiak lagundurik.

"SAN MARTZIAL HIMNOA

SAN MARTZIALI GOZOAK

Kanta diezkiogun gustoz Martziali gozoak
Saria emango digu gure Jaungoikoak
Zure bost ogiekin, zure bi arraiekin
Bost milak izan zuten mantendu zerekin
Haragatik zure ondoren dabilta gizonak
Kanta diezkiogun gustoz Martziali gozoak
Saria emango digu gure Jaungoikoak (bis).

KANTA HERRIKOIA

Altxatarrak, Altxatarrak, gazte heldu edo zaharrak
Altxatarrak, beti, beti, kasta onekoak.

Altxatarrak, Altxatarrak, gazte heldu edo zaharrak
Altxatarrak, beti, beti, kasta onekoak.

Ekainak 30, ostirala, San Martzial eguna

11:00 San Martzial Parrokian, Meza nagusia Altxako Deun Gorenaren omenez.

11:00-13:30 Saskibaloia familian jolasak eta jaurtiketa lehiaketak Club ASKATUAKen eskutik. San Martzial plazan.

13:30 Patata-tortilla lehiaketa.

13:30 Postreen lehiaketa.

16:00 Haurrentzako MARRAZKI LEHIAKETA. LA MÁS KUKI-k antolatuta. Lehiaketaren oinarriak egun batzuk lehenago argitaratuko dira www.facebook.com/lamaskukidetalles web orrian. Sari banaketa uztailaren 2an izango da idi demaren aurretik.

16:30-18:30 Saskibaloia familian jolasak eta jaurtiketa lehiaketak Club ASKATUAKen eskutik. San Martzial plazan eta Roman Irigoien plazan.

17:00 Haur jolasak.

18:00 Bolo jaurtiketa Udal bolatokian.

18:00 DANTZA MODERNOA. Pausokdance dantza taldearen eskutik.

18:15 JUDO erakustaldia. Judo eskolak antolatuta.

18:30 Toka txapelketa.

18:45 Euskal dantza, HERRI AMETSA Dantza taldearen eskutik.

19:15 Txokolate-jana haurrentzat Pilotalekuan. Nao Etxeko Estherren lankidetzarekin.

19:15 BURUHANDIAK kaleetan zehar.

20:00 TIO TERONEN SEMEAK, dantza eta umorea uztartzen dituen taldearen ikuskizuna.

21:30 REVUELTA ANAIK ETA JESUS ETXEBESTERen kantaldia. Bizarrain Euskara Elkarteak lagunduta.

23:00 DJ-a.

00:00 ZEZEN-SUZKOA.

Ondoren, DJ-a.

Uztailak 1, larunbata

11:00-13:00 Puzgarriak Plaza Gorrian

11:30 Pilota partida. Altxa Herria III. eskuz binakako finala

12:00 TOKA txapelketa NAO etxeak antolatutik.

12:30 Pilota partida. TitinIII-Koka eta Bengoetxea VI- Goñi II.

14:30 HERRI BAZKARIA San Martzial plazan. Txartelak aurretik hartu behar dira.

17:00 NAO etxean ospaturiko txapelketen SARI BANAKETA. Jarraian bazkidetzako luntxa eta dantza bazkide eta lagunentzat.

17:30 SHOW-TIME (Erroteta 7) aren dantza emanaldia.

18:00 Erretereriako Egi-Luzeko baskulan hurrengo egunean idi probatan parte hartuko duten lau IDI BIKOTEEN PISAKETA egingo da, Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioko epaileen eta Foru Aldundiko albaitariaren aurrean.

18:00 APAR FESTA.

18:30 Pasai TXARANGAK alaituko ditu auzoko kaleak.

18:30 Sardina-jana Nao Etxea tabernako ESTHER-en eskutik, Arabako Errioxako D.LUIS R. ardoaz lagundurik bizilagun eta bisitari guztientzat, VINOTEC ardo-etxeak babestuta.

19:00 BURUHANDIAK kaleetan zehar.

23:00 Café irlandés Musika taldearen emanaldia.

Ondoren, txosnaren ondoan, DJ-a gautxorientzat..

Uztailak 2, igandea, Santa Ixabel, baserriarren eguna

09:00 DIANA Altxako kaleetan zehar Donostiako txistulari bandaren eskutik.

10:00 San Martzial Parrokian MEZA NAGUSIA.

10:30 Minbiziaren aurkako Azoka solidarioa ASGINCERREN laguntzarekin Plaza gorrian.

10:45 XXXI Sagardo lehiaketa honako sagardogileen partaidetzarekin: BARKAIZTEGI, LIZEAGA, GARTZIATEGI, OYARBIDE, PETRITEGI, ALTZUETA, OTSUA-ENEA, EULA eta AKARREGI.

Ondoren, SARI BANAKETA egingo da.

12:00 NAO ETXEA elkartearen eskutik txistorra, gazta eta hirugihar ogitartekoak.

12:30 Udal probalekuan IDI-DEMAK. Aldez aurreko zozketaren ondoren, bi idi pare jardungo dira eguerdian eta beste bi arratsaldean.

Diru sariez gain, bikote irabazlearentzat sari berezia egongo da. Bikoteek diru-saria edo garaikurra jasotzeko, gutxienez 30 plaza egin beharko dituzte bi mila kiloko harriarekin.

Aurten honako hauek korrituko dute harria:

1- Jexux Mari Matxain- Matxain Aparola (Orereta).

2- Jesus Mari Garaia- Zabaltxo baserria (Oiartzun).

3- Mari Carmen Portu (Olatzar) -Iturmendi baserria (Lasarte-Oria)

4- Iker Zubillaga (Igeldo).

13:30 Bertsolariak San Martzial plazan: ANDONI EGAÑA eta AMAIA ITURRIOTZ. Gaijartzailea JOSEBA ALKIZA.

14:30 ANAITASUNEZKO BAZKARIA Altxatarra elkartean bertsolariak lagundurik.

17:00 "ZUMBA" ASGINCER-en laguntzarekin, Plaza gorria

18:00 Udal probalekuan IDI-DEMAK. Eguerdian tira ez duten idi-pareen txanda izango da.

18:30 ALTZAGAINAKO XXV. SAGARDO EGUNA Altxania K.E.k antolatutik.

GORA SAN MARTZIAL